

Proiektuetarako jarduerak | Inklusioa

Bigarren Hezkuntza. 12 - 18 urte

Giza Eskubideak Defenda Ditzagun!

	Bigarren Hezkuntza 16 - 18 urte
	Maila Ertaina
	Denboralizazioa 20 saio
	Kideak Gehienez 4-5 kide

JARDUERAREN DESKRIPZIOA

Ikasle-talde bakoitzak poster bat sortuko du Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsala abiapuntu hartuta. Horretarako, gizartean dauden arazoak eta irudikatzen dituzten argazkiak bilatuko ditu, argazki bakoitzari hitz bat edo esaldi motz bat gehituko dio eta landuko duen artikuluko horrentzako goiburu edo slogan bat sortuko du.

Emaizta eBook bat da, online eta aldizkari inprimatuan argitaratuko dena. Posterrak inprimatu eta ikastetxean agertuko dira. Proiektua garatu bitartean egindako argazkiekin bideo-erreportaje bat sortuko da.



JARDUEAREN XEDEAK

- Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsala eta balio moralen esanahia ezagutzea, besteak beste, duintasunarena, askatasunarena, solidaritatearena eta justiziarena.
- Europako lurralde ezberdinen parte hartzea eta haien arteko kolaborazioa sustatzea elkarren artean arazo sozialak konpontze aldera.

JARDUERAREN GARAPENA

1. Fasea Prestatzea

1. Urratsa. Erregistroa

Irakasleek ikasleak proiektuaren TwinSpace-an erregistratuko dituzte eta ondoren ikasleei emango zaizkien gako pertsonalak jasotzen dituen dokumentua gordeko dute.



2. Urratsa. Nazioarteko taldeak sortzea

Dozenteeek ikasleak nazioarteko taldeetan antolatuko dituzte. Talde bakoitzean lurralde bereko 2 edo 3 ikasle egongo dira, parte hartzen duen lurralde-

kopuruaren arabera. Oso ekipo handiak ez izatea eta ekipo bakoitza gehienez 6 ikaslekoa izatea gomendatzen da.

Ekipo bakoitzean zein ikasle egongo diren jasoko da taula batean:

Equipos Países	EQUIPO 1 Tutor:	EQUIPO 2 Tutor:	EQUIPO 3 Tutor:
FRANCIA	Alumno 1	Alumno 2	Alumno 3
ESPAÑA	Alumno 1	Alumno 2	Alumno 3
GRECIA	Alumno 1	Alumno 2	Alumno 3

3. Urratsa. Orri nagusia eta ekipoentzako azpi-orriak prestatzea

Dozenteek hainbat orri sortzen dituzte TwinSpace-n proiektuaren garapena antolatzeko. Honako edukiak jasoko dituzte, baina gero areagotu ahal izango dira:

- **Proiektuaren planifikazioa** duen orria, xedeak, denboralizazioa, egin beharreko jarduerak eta parte hartuko duten lurralde eta ikastetxeak jasoko dituen
- **Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsala** jasoko duen orria
Esteka adierazpenera <http://www.un.org/es/udhrbook/mobile.shtml>
- **Nazioarteko ekipoak** eta ekipo bakoitzaren irakasle-tutorea nor den islatuko dituen **taularen** orria
- Nazioarteko ekipoentzako **azpi-orri bana**, sortutako posterrak jasoko dituen



4. Urratsa. Foroak prestatzea

Hasteko, irakasleek **Foro Orokor** bat irekiko dute giza eskubideei buruz eztabaidatzeko: zer diren, zein funtzio betetzen dituzten eta zer erabilgarritasun duten gaur egungo munduan.

Ondoren, ekipoek zein artikulua landuko duten aukeratu dutenean, (...)

Artikuluaren Foroa irekiko da haietako bakoitza komentatzeko.

Eta proiektua amaitzeko, poster irabazlea aukeratu eta **Bozkatzeko Foroa** irekiko da, baita **Ebaluaziorako Foro** bat ere, proiektuaren amaierako balorazioak jasotzeko.



5. Urratsa. Materialen karpetak prestatzea

Dozenteeek TwinSpace-ko **Materialak** moduluan karpetak sortuko dituzte:

- Proiektuaren **Dokumentuak** karpeta
- Ekipo bakoitzarentzako **Irudiak** karpeta
- Amaierako produktu gisa sortutako **posterrak osatzeko Irudiak** karpeta
- Ikastetxe bakoitzean proiektua garatzean ateratako **argazkiak jasoko dituen Irudiak** karpeta
- **Bideoak** karpeta, parte hartzen duten ikastetxeek proiektua garatzean egindako bideo-erreportajeak gortzeko



2. Fasea: Jarduera garatzea

1. Urratsa. Proiektua eta TwinSpace aurkeztea (3 saio)


Dozenteak **proiektua eta kideak aurkeztuko ditu**; parte hartzen duten ikastetxeen web-orri instituzionalean sartuko da. Ikastetxeen lurraldeak mapan kokatuko dira.

TwinSpace lanerako espazio gisa aurkeztuko da. Ikasleak TwinSpace-n sartuko dira irakasleak banatuko dizkien gakoekin (erabiltzailea eta pasahitza), TwinSpace-n **haien profilak editatu eta osatuko dituzte** eta egokitu zaien ekipoarekin harremanetan jarriko dira.

Ikasle bakoitzak egin beharrekoak:

- **Bere aurkezpena idaztea:** herria, jaio diren lurraldea, hobbyak, familia, baina telefonoa edo posta-helbidea bezalako datu pertsonalik ez
- **Profilera argazki bat** edo irudikatzen duen irudi bat **igotzea**
- **Aurkezpen-orrira jo eta bere ekipoa ezagutzea.**

- Kide diren ikasleei **mezuak uztea** interakzioa sustatuko duen hizkuntza baikorra erabiliz eta haien hizkuntzan hitzak edo mezuak idatziz. Lineako itzultzaileak erabil daitezke.
- Ikasleak zein ekipotan dagoen dakienean, bere **ekipoaren azpi-orrira jo beharko du** une horretatik aurrera hor lan egin beharko du eta.



2. Urratsa. Ekipoek GEAU-ko artikulua hautatzea (3 saio)

- Irakasleek haien talde nazionalekin batera Giza Eskubideen Adierazpenaren **30 artikulua irakurriko dituzte**. Ondoren eztabaida txiki bat irekiko da zeintzuk diren garrantzitsuenak eta zergatik komentatzeko.
- **Foro Orokorrean** parte hartzea.
- Ikasle bakoitzak bere nazioarteko taldekideekin batera zein artikulua landuko duen **hautatuko du**. **Azpi-orria** eta **txata** erabiliko dituzte elkarrekin komunikatzeko.
- Artikulua hautatu eta gero, **egin beharrekoak banatuko dira**: irudiak eta bideoak bilatzea, hitzak bilatzea lantzen ari den artikulua testuinguruan, esaldia edo slogana sortzea.

3. Urratsa. Ekipoek ikertzea eta materiala jasotzea (3 saio)

Ekipo bakoitzak lantzen ari den GEAU-ren artikuluari buruzko informazioa bilatuko du Interneten eta dagokion azpi-orrian gordeko du. Helburua ikerketan txiki bat egitea da, hainbat fase jarraituz:

- Ekipoan adostutako lan-banaketaren arabera, ikasle bakoitzak Interneten informazioa **bilatu eta jasotzera ekingo dio**.
- Kide bakoitzak **honakoei buruz ikertuko du**: artikuluaekin lotutako gizarte arazoak, bidegabekeria-egoerak salatzen dituzten elkarteak, horrekin lotutako irudi adierazgarriak, artikuluari buruzko bideoak, bere testuinguruko hitzak, mezua duten esaldiak, konponbide bat ematen duten sloganak...
- Kide bakoitzak **informazioa hautatu eta gordeko du** bere ekipoaren azpi-orrian eta, besteak beste, irudi-banku bat, esaldiak eta informazio garrantzitsua bilduko ditu.
- Ikasleak ikertzen ari diren bitartean **argazkiak** aterako zaizkie eta Proiektuaren Egunerokoan partekatuko dira (*kontu handia izango da ikasleen irudia babestearekin*).

4. Urratsa. Poster kolaboratiboa sortu eta argitaratzea (3 saio)

Ikertu beharreko alderdi guztiei buruzko nahikoa informazioa edukitakoan, **poster bat sortuko da era kolaboratiboan** <https://www.genial.ly/es> edo antzeko tresna batean.

- Ikasle batek posterra irekiko du tresna digital batean. Horretarako, erregistratuko da, zein txantilo erabiliko duen aukeratuko du eta taldekideen artean esteka partekatuko du. Haiek ere programan erregistratu behar dute sartzeko.
- Ikasle bakoitzak bere ikerketari dagokion zatia gehituko du posterrean: irudiak, esaldiak, hitzak, slogana... eta emaitza gordeko du pixkanaka.
- Bukatutakoan, online argitaratuko da eta JPEG formatuan gordeko da Materialak/Irudiak karpetan.
- TwinSpace-ko orrira igo edo bertan txertatuko da.



5. Urratsa. TwinSpace-ko Foroetan parte hartzea (3 saio)

Parte hartzen duten ikasle guztiek landutako artikuluei eta topatutako arazoei buruz pentsatu eta iritzia emango dute, haiei buruz hausnartuko dute eta konpontzeko proposamenak egingo dituzte.

- GEAU-ren garrantziari buruz **Foro Orokorrean** parte hartzea
- (...) **Artikuluaren Foroa** izeneko bat irekiko da landutako artikulua bakoitzeko, iruzkinak eta galderak egingo dira eta artikulua horretaz arduratu den ekipoak erantzungo ditu.
- **Foro bat** irekiko da **bozketa egiteko**, posterretako bat hautatzeko, eta zergatia azalduko da.

6. Urratsa. Posterrak inprimatu eta erakustea (1 saio)

Dozenteei eta ikasleek **posterrak inprimatu eta ikastetxean jarriko dituzte ikusgai**. Erakusketen argazkiak egingo dira eta proiektuaren Egunerokoan sarrera bat idatziko da.

7. Urratsa. eBook-a eta bideo-erreportajea sortzea (4 saio)

- Ekipo boluntario batek eta irakasle-tutoreak **eBook-a argitaratuko dute**, eta proiektuaren eta parte hartu duten kideen aurkezpena eta posterren bilduma izango ditu. TwinSpace-ra igoko da.
- Kide den ikastetxe bakoitzeko irakasleek eta ikasleek **aldizkari formatuan inprimatuko dute** eta ikastetxean banatuko dute, baita guraso eta gazteen elkarteei ere.
- Ekipo boluntario batek eta irakasle-tutoreak proiektua garatzean **kide guztiek ateratako argazkiekin bideo-erreportaje bat sortuko dute**. TwinSpace-ra igoko da. Proiektuaren Egunerokoan azkeneko sarrera idatziko da.
- **Ebaluaziorako Foroa** irekiko da eta ekipo guztietako ikasleek hausnarketa-balorazio bat egingo dute proiektuaren garapenari buruz: gaia, parte-hartzea, produktuak, hobekuntza-proposamenak.



3. Fasea: Datuak jasotzea eta jakitera ematea

- Proiektua hasten den unean bertan, **informazio orokorra** eta **azken emaitzak** (posterrak, eBook-a, bideo-erreportajea) dituzten orriak publiko egiten dira.
- **Proiektuaren Egunerokoa** idazten joango da eta parte hartu duen ikastetxe bakoitzean nola garatu den azalduko da. Astero, lurralde bakoitzeko ikasle batek iruzkin bat egingo du; ikasleak lanean ari direla agertzen duen argazki bat erants dezake.
- **Institutuaren webgune instituzionalean proiektuari buruzko informazioa argitaratuko da**, baita **sare sozialetan** ere, ikastetxearen Facebook edo Twitter kontuetan adibidez.
- **Ikastetxearen webgunean esteka zuzen bat jarriko da TwinSpace-ra.**

- **Ikastetxean**, departamentuek gauzatzen dituzten jardueri buruzko informazioa ematen duen **telebistan (tb)**, **proiektuko posterrak**, **argazkiak eta abar argitaratuko dira**.

AURREIKUSITAKO PRODUKTUA(K)/EMAITZA(K)

- **Posterren bilduma eta ikastetxeko erakusketa**
- **eBook-a** sortutako poster guztiekin
- **Posterrekin inprimatutako aldizkaria**. Beste ikastetxe batzuei eta herriko gazte erakundeei banatuko zaie
- **Proiektuaren garapenari buruzko bideo-erreportajea**, parte hartu duten ikastetxe guztien argazkiak jasoko dituen

TWinspace-KO TRESNAK/ KANPOKO 2.0 TRESNAK

- TwinSpace-ko profil indibidualak, orriak, TwinSpace foroa, Materialak (karpetak)
- **Posterrak edo kartelak** online **diseinatzeko** tresnak: canva.com, emaze.com, easel.ly, Genial.ly edo antzekoak
- Posterren bilduma duen **eBook-a argitaratzea**: com, calameo.com edo antzekoak
- **Argazkiekin bideoak** montatzek programak: movie-maker, animoto.com, photopeach.com, kizoa.com edo antzekoak
- Facebook, Twitter, Google+...jakitera emateko

DENBORALIZAZIOA

- 1. Saioa: **Proiektua eta kideak** aurkeztea
- 2. Saioa: **TwinSpace-n sartzeko gakoak** banatzea. **Proiektuaren Egunerokoa** hastea
- 3. Saioa: Ikasleen **profilak** osatzea, taldekideekin harremanetan jartzea
- 4. Saioa: **Giza Eskubideen (GGEE) zerrendaren hasierako irakurketa**. **Saioaren argazkiak** egingo dira
- 5. Saioa: **Foro Orokorrean** parte hartzea
- 6. Saioa: **Landuko den artikulua** hautatzea eta eginkizunak banatzea
- 7., 8., 9. Saioak: Ekipo bakoitzak **informazioa bilatu, aztertu eta materiala jasotzea**. Saioen argazkiak egitea eta Proiektuaren Egunerokoan sarrerak idaztea.
- 10. Saioa: Posterra egiteko erabiliko den **tresna digitalean erregistratzea**
- 11., 12. Saioak: **Posterra era kolaboratiboan** sortzea eta guztiak **TwinSpace-n** jasotzea
- 13. Saioa: **Gainerako ekipoen posterrak** ikusi eta aztertzea
- 14., 15. Saioak: **Landutako artikulua** bakoitzari dagokion foroan parte hartzea. **Foroan poster irabazlea** bozkatzea

- 16. Saioa: **Posterrak inprimatu eta ikastetxean agertzea.** Argazkiak egiten dira eta proiektuaren Egunerokoan sarrerak idazten dira
- 17. Saioa: **eBook-a** sortu eta **argitaratzea.** TwinSpace-ra igoko da
- 18. Saioa: **Aldizkari formatuan inprimatzea** eta banatzea
- 19. Saioa: **Kide guztiek egindako argazkiekin bideo-erreportaje bat sortzea.** TwinSpace-ra igotzea eta proiektuaren egunerokoan azken sarrera idaztea
- 20. Saioa: **Ebaluaziorako Foroan** parte hartzea